

DERIOKO SEMINARIOAREN OKUPAZIOA: 50.URTEURRENEAN

Orduko testuingurua:

- Aldez aurreko lehenengo urratsak:
 - Gerra osteko isiltasun eta beldurra, suntsiketa eta genozidioaren ondorioz.
 - 1937: **Gasteizko Mateo Mujika Gotzainak** ez zuen izenpetu, zalantza askoren ondorioz, Francok Gomá Kardinalari agindutako Karta: **“Los Obispos españoles a los Obispos del Mundo”**, zeinean Francoren “Cruzada” hauspotzen zen, Elizaren alde egin zuelako.
 - 1944: **“Memoria a Roma”**. Abade euskaldun batzuen “Txostena”, Españaren egoera politikoaz eta batez ere **EHkoaz: ez zelako aintzakotzat hartzen ez bere izaera ez eta bere egoera.**
 - Langileen lehenengo erreakzioak, grebak atxilotetak, errepresioa, ...
 - **1953: FRANCO ETA ELIZA KATOLIKOEN ARTEKO “KONKORDATOA”.**
 - Francok Elizaren gastu guztiak ordainduko ditu. Horren truke, Gotzainak izendatzeko orduan, Frankok 3 izen aurkeztuko dizkio Elizari, beronek Gotzain bat aukera ditzan. Elizak ez du zergarik ordainduko; Katolikoa Erlijio bakarra izanen da; Erlijio Katolikoa eskola publikoetan; Maila guztietako irakaskuntzan aritzeko aukera; “zentsura” eskubidea; ...
- 60.hamarkadako urrats batzuk:

1. Orokorrak:

- Kultura, Hizkuntza aldetik: biziberritze baten borroka, iraultza. Euskara Batua. Euskarazko lehenengo eskolak etxe pribatuetan, lehenengo “Ikastolak”. “KILI-KILI” Aldizkaria (Jose A. Retolaza), umeentzako.
- Musika: “EZ DOK AMAIRU”, ...
- Arte munduan: Jorge Oteiza, “Quousque tandem ...”, Nestor Basterretxea, Txillida, Ibarrola, Vicente Larrea, R. Mendiburu, ...
- **Erakundetze mailan:** Talde Politikoak (Falange izan ezik) eta Sindikatuak debekatuta. “Acción Católica” berrituta, JOC, HOAC eta JARC (Juventud Agrícola Rural Católica). Contsiliarioak (abadeak) Gotzainak izendatzen zituen.
 - Guk ez genuen onartu horrelako inposaketarik, eta geure herrietan JARC-en ordeztu, **“HERRI GAZTEDI”** izenarekin antolatu genuen nekazal inguruko gazteen mugimendua. Metodologia hausnarketan eta praktikan oinarritzen zen; herrigintzarako lan taldeak ziren. Gaiak: herrikoak, hala nola, baserriko zereginak, Jaiak, dantzak, musika, Akademiak, “Lanbide Ikastegiak”, ihardun aldi sozialak (historia, herriaren erakundetzea, geografia, ...), haurdunaldiaren kontrako Paulo VI.ren **“pilulen” debekuaren Enziklika**, etab.
 - **ETA.** Bere jaiotzetik hamarkada bat geroago, bere 1967.ko V. Asanbladaren ostean, **1968.an sendatzen da mugimendu bezala,**

proposatu zuen bere 4 fronte (guneen) inguruan: kulturala, politikoa, langileena, eta militarra.

- **Sozioekonomia mailan, KOOPERATIBAK sortu berri. Fabrika handienetan, soldaten murrizketak, grebak, protestak, kanporatzeak, atxiloketak, kolpeak ...**
- **Abadeak:** Eginkizun guzti hauetan parte hartzen duten abadeak agertzen dira 50.kadako azkeneko urteetan eta 60.ko lehenengo urteetan abade egindakoak.
 - Orduan gazteak, euren etxe eta herrietan entzun eta ikusi zuten testiguak. Seminarioko ikasketak, sufritzen edota zapalduetakoekin bat egin beharra. Aurreko abade batzuen eskubideen aldeko jarrera zintzoak, ... herritarren biziberritzearen aldeko borroka, ...
 - *Herritarrak ginen, 20/25 urte zirela suntsitutako, "genozidatutako" herri baten semeak. Herri-biziberritzearen hastapen horiekin bat, sentibera. Hizkuntza, kultura, herri izaera, lan eta bizia, ... oraindik zapaltzen gintuzten kontzientzia osoarekin geunden.*
 - *Eta abadeak, era berean. Elizaren ordezkariak. Elizak indar eta eragin handia zuen herriaren aurrean, kasu honetan txarrerako: Eliza Diktaduraren menpe eta bere babesa zen. Guzti honen eraginez, eta jakinda abadien eta Elizaren indarra eta eragina, bere sen guztia jartzen saiatu ziren abadeek zapalduen alde, herri eta herritarren eskubideen alde, abade etxeetako ateak zabalduz, elizen Kanpai Dorreak babes, gotorleku ... [Herritarrak izanda, Elizaren sinergiaz baliatu ginen.](#)*
 - **Lehenengo salaketa eta errepresioak.** Deretxuen aldeko sermoiekaitik: euskara, langileen eskubideak, España eta Diktaduraren sinboloak Elizetan, ikurrina, adierazpen askatasuna, ... Ondorioz, multak, detentzioak, komentuetan atxiloketak, karguetatik kentzea, ...

2. Zehatzagoak:

- **1960: 339 abadek sinaturiko Karta:** EH-k pairatzen zuen zapalkuntza egoera salatzen zen, **torturak. Batez ere, Elizak Diktadurari emandako oinarri eta babesa salatzen zen.**
- **1964: "25 AÑOS DE PAZ".** Ikaragarritzko ospakizun hauek Frankismo eta Elizaren kontrako erreakzio asko eragin zituen jendartean.
- **66.11.30-67.05.20: Etxebarriko "Laminaciones de Bandasko" fabrikaren Greba.**
- **67.04.04: Solidaritate manifa izugarria Bilbon.** Oso gogor kolpatutakoa.
- **1966: Referendum "Ley Orgánica del Estado".** Gotzainak debekatu zigan kontra egiterik. Ez genion kasurik ere egin, eta salatu genuen etenik gabeko Diktadura proposatzea, sermoietan, herrietan banandutako panfletoetan, ... Ez genuen esan zer boto eman behar zen, baina argi zegoen. Dena den, gure kontrako salaketak egin ziren orduko komunikabideetan etab.
- **1967, maiatzean: Abadeen manifa Bilboko Gran Vian, sotanekin (80 abade), BANDASeko langileen alde.**
- **1967.04.21: "Salbuespenezko Estatusa", Bizkairako eta 3 hilabeterako.**
 - **106 Bizkaiko abadek "Eskutitz agiria Franco eta bere Gobernuari" izenpetu zuten. "Salbuespenezko Estatusaren" arrazoiak ez zirela**

“supuesta situación de alteraciones”, Dekretuan agertzen zen moduan. Abadeen ustez, **sakoneko arrazoia zen pertsonen oinarrizko eskubideen amai gabeko ukapena.**

- Azpimarratzen zen Diktadura-Gobernuko *“Principios del Movimiento Nacional”* giza askatasunaren zeharo kontrakoak zirela. Eta herritarrak arrazoi osoa zutela horren kontra zutitzeko. **Pertsonaren barruko izaera bera ere “zaurituta gelditzen zela” salatzen zen Erlijio bakarraren inposaketarengatik.**

“Ley de Excepción” hori *“bide zuzenetik garaitzera etorren borroka itotzeko jarria zela, sinisturik dago Bizkaia”*, esaten genuen Karta horretan.

- **Francok: “Clérigos separatistas”.**
- **Antoniutti, Madrilén Vatikanoko enbaxadorea, Nuntzioa: “Traidores a Cristo”.**
- **1968.07.07: Txabi Etxebarrieta erail zuten. Jarraian bere aldeko mezak. Gotzainen eta Gobernadorearen debekuak >Guardia Zibila debekatzera etorri zen parroketara. Detentzioak, multak, mehatxuak, ...**
- **1968.08.08: Melitón Manzanás akabatu zuten.**
- **1968. Uztail/Abuztuan: Bilboko Gotzaindegiko Bulegoak birritan okupatu genituen. Aldi bakoitzean 40 abade gutxi gorabehera, izan ginen.**
 - Ordurako, urrats guztiak jarraitzen zituzten nazioarteko komunikabide batzuk: BBC, REUTER, Agence France Press, “Le Monde”.
- **1968.ko udaberri/uda hasieran izen propioa jarri genion geure mugimenduari. Aurretik, “Abadeen Koordinakundea” deitzen genuen. Gero, “GOGORKERIAREN AURKA, GOGORTASUNA” deitu genion.**

Hau da, **-tasuna** (kualitatea, fortaleza), **-keria** aurka (zerbait txarra, terrore, gaiztakeria). Geure pentsaera eta jarrera ondo definituta gelditzen zela, uste genuen. Herri mailan eta laburrean, **“GOGOR”** taldea zen.

- **Derioko Seminarioaren okupazioa.**

1. Aldez aurreko azalpen batzuk:

- **Bilboko Gotzaindegiko bitartekariekin eztabaidak.** Gotzaindegiko kargudun eta Teologia irakasle-abade batzuekin 4/5 bilera-eztabaidak izan genituen. *“Goztaineri behar zaion obedientzia eskatzen ziguten; era berean, “politika” egiten genuela aurpegiratu ziguten, geure abade-parrokietako zereginak alboratuta utzita”.*
 - *Ezinezkoa zela Eliza-Diktadura-Potere ekonomiko kapitalista bati men egiterik, altxatu baizik. Eta politika beraiek egiten zutela, Españaren egitura inbaditzailea eta genozida aintzakotzat hartzen zutelako. Guk, oster, herritar behartu eta zapaldutakoen beharrianen alde genbiltzala, Ebanjelioetan ikasi bezala, argitu genien.*
 - Ez zuten mugitu nahi. Bertan behera gelditu ziren elkarriketak.
- Geure jarrerak eta pentsaerak kontrastatu genituen beste herrialdeetako gure abade ezagunekin, **Gipuzkoa, Nafarroa, Araba eta Ipar aldekoekin.**
- Baita be, **Kataluniako Montserrateko Abate Benediktarrekin.**
- Ikusirik ez zegoela **Gotzainaren aldetik** inolako erreakziorik, oster, Francoren pean, patronal eta kapitalismo basatiaren alde, errepresioa,

torturak, deportazioak, atxiloketak, kartzelaratzek, denak aintzakotzat hartzen, **berean jarraitzen zuela**, inolako gupidarik gabe, baita abadeen kontrako gaztigu, isun eta espetxeratzeekin, **urrats gogorrago bat** eman behar genuela pentsa genuen, **“kokoteraino”** egon ginen eta.

➤ Oihartzun handikoa. Bozgorailu indartsu bat hartu behar zen, egonkorra, bertan asanblada iraunkor eta eraginkorra ekiteko modukoa. “Gotorleku” bezalakoa, Konkordatuarengatik babestuta, printzipioz, poliziaren aurrean.

2. **Derio: “Lau, lau-mila operazioa”**. Esaldi honekin konfirmatu genuen Seminarioa sartzeko deialdia.

➤ Hau da, Azaroaren 4.an, arratsaldeko 4.tan, mila pezetarekin. Bagenekien non.

- **Lan taldeak eratu ziren alde zurretik**: Seminarioko arduradunekin adosteko geure egoera (inori oztopatu gabe bere zereginak, estudiante zein irakasle); Vatikanora eramateko Dokumentuaren idazketa taldea; komunikazio taldea; intendentziakoa (jatekoak, etab.); ekitaldiaren esan nahia herriratzekoa.
- **Parrokietan abisatu** genuen hurrengo egunetan ez ginela egongo, guztion aldeko ekimen bat burutzeko asmoekin geundelako.
- **Poliziak Seminarioa inguratu arren, 60 abade, gutxi gora behera, sartu ginen, esandako ordu eta egunean, Erromara (Dokumentua eramatera) eta Iparraldera (prentsaurrekoa ematera azkeneko hauek) joan zirenak izan ezik**.
 - **Erromako, Vatikanorako bidaia**: Martin Olazar eta Juan Mari Arregi, lehenengo bidai batean; bigarren batetan, Martin Orbe eta Iñaki
 - **Prensaurrekoa Iparraldean, Angelun**: Juan Mari Arregi eta neu.
- Barruan, eratu ginen herrietara joateko: azken batean ekimena azaldu behar zen jendarteari. Kanpokoak lagunduta, jendea gainezka etortzen zen geure ikuspuntuak konpartitu edota eztabaidatzeko. Eta animoak emateko.
- **Unibertsitateko ikasleak** ere eskatu ziguten hitzaldiak. Baina Dekanoak debekatu ziguten.
 - Itxialdia amaitu ondoren, Artxandako Teologia Fakultatean Luis Mari Laibarra eta biok **eman genuen izena**, eskoletara joateko, horrela aukera izango genuelako hitzaldiak egiteko. Horrela egin, eta **2 Asanblada ikaslez gainezka egin genituen**.
- Asanblada iraunkorra zenez, zerbait gertatzen bazen, erantzun edo komunikaturen bat berehala ateratzen genuen.
- Barruan egindako elizkizunetan abesten genuena, gero disko baten grabatu genuen. Hala nola, “Ez, ez dut nahi, ez, ez,ez ...” (Julen Lekuona) edota Xabier Amurizaren bertsoak.
- Gotzainak, Pablo Gurrutxaga-k, geure abade zereginak zintzilik, **suspendituta utzi zizkigun (“Suspensio a divinis”)**. Handik eta lasterrera, hil zen Gotzaina.
- Bertoko komunikabideak esaten zuten **“abade traidoreak erail zutela Gotzaina”, “abade herejeak”**.
- **Okupazioarekin jarraitu genuen**. Arazoa ez zen Obispoa bera, bera ere izan arren. Arazoa sistema bera zen.

- 68.11.20: Jarraian, José M^a Cirarda, Santanderren zegoan Gotzaina, Bilbora etorri zen **“Administradore Apostolico”** bezala, probisional, Vatikanok izendatuta. Bakiokoa bera, baina euskararik ez zekien. “Ordena” apur bat jartzeko asmoarekin etorri zen, antza.
- Cirardak, Seminariotik irteterakoan, altxatuko zigula suspentsioaren zigorra, esan zigun, pentsatuz, horrela, amore emango geniola okupazioari. Baina, Cirardak ez zuten osatzen guk eskatutako baldintzarik. Behar ziren moduko erantzunik gabe gelditu ziren geure eskaerak. Eta geurean jarraitu genuen.

2.1. Vatikanora eramandako Dokumentua.

- Labur, nahi genuen *“Eliza pobre, libre, dinamiko, indigena bat”*. Hortaz, Elizaren Erreforma hasteko, eskatu genuen *“EUSKAL HERRIKO GOTZAINEN KONFERENTZIA”*. *“Berriztatze hau hainbat arinen hasiko ote duen “Administradore Apostolico” baten zain gelditzen gara Bilboko Seminarioan”, esan genuen.*
 - (Geroagoko ikuspegiaz begiratuta, *esan genezake Dokumentu hau gerora Hego eta Ertamerikan ezagutua izan zen “TEOLOGIA DE LA LIBERACION”aren aurrekaria izan zela, ardatz ideologiko nagusiak kontuan hartuta, behintzat).*
- Irteera.
 - **Azaroaren 26. inguruan utzi genuen okupazioa.**
 - Eten ziren elkarrizketak. Ez zen mugimendurik nabaritzen
 - Helburua ez zen, bertan geundela, erreformak lortzea, ez.
 - **Helburua zen Eliza zapaltzailearen kontrako oihartzun handiko salaketa egitea, eta azaltzea nondik norako Eliza nahi genuen.**
 - **Eta hau geure Herriaren aurrean argi gelditu zela uste genuen. Beraz, gerora be, luzaroko borroka izango zelakoan geunden.**
 - *Eskerrak emanaz parte hartu zuten guzti-guztiei, beste era batera, geure herrietatik eta herritarrekin batera, jarraituko gurela borrokatzen, aldaketarako jarritako ardatzak gainditu ditzagun.*
- Ondorio batzuk:
 - Jakin izan genuen geroago, Gotzainen arteko bilera pare bat egin zirela, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruña eta Baionakoen artean.
 - Herritarrak duintasunez egindako ekimena zela eta, pozarren eta biziberrituta, gogotsuago, indartsuago agertu zirelakoan geunden.
 - Atera zen **“GOGOR” DISKOA**, senide eta lagun artean entzuten zen, erdi klandestinitatean, emozioz beterik. Diskoaren Barnean, Vatikanora bidaliko Dokumentuaren laburpena, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez sartu zen.
- Bitxikeri bat: *“BBB del Partido Nacionalista Vasco-k”* itxialdia amaitu ondoren, **orri bat kaleratu zuen**, zeinean, besteak beste, zera adierazi zuen:
 - *“... Nos creemos hoy obligados a manifestar la emoción ..., y el respeto y admiración que sentimos por el selecto grupo de esos dignos hijos de nuestro pueblo, que con entereza, espíritu de renuncia, entrega y sacrificio sin esperanza de beneficio personal, ... han sabido exponer, dar alivio y*

esperanza ... , renovar y ampliar la toma de conciencia del pueblo en general."

Amaitzeko. Paulo VI.ri egindako Dokumentuaren hasieran, **Saliège Kardinalaren** (Okzitaniako, Tolosa) esaldi bat jarri genuen, eta berarekin gelditzen naiz orain: *"Zuzengabetasunaren aurrez aurka irten barik, borrokan egin barik geratzea, ez dagokio ez gizon ez eta kristau den bati". "Resignarse ante la injusticia sin protestar contra ella, sin luchar, no es digno de un hombre ni de un cristiano".*

EPILOGO GISA

- 1969.03.01: Asteburu honetan **Donostiako Katedrala okupatu zen**. CAF-ko langileen grebak, errepresio izugarriak zirela eta. 300 herritar (abade batzuk tarte) okupatu genuen. Hurrengo egunean, igande arratsaldean, polizia sartu zen, eta oldarkor, kolpeka atera gintuzten.
- 69.03.09: Luis Mari Laibarra eta biok **ihesari eman genion**, Iparraldetik pasa ondoren, jarraian, Parisera.
- 69.04.09: **Bilboko Artekaleko ETako "kupularen" erorketa**: tiroak, zaurituak atxilotetak, Mikel Etxeberriaren ihesaldia, taxistaren heriotza, ...
- Jarraian, maiatzean, **ihesaldi masiboa**: Tartean, Derioko okupazioan egondako 10 bat abadeena.
- 69.05.30: Bilboko Gotzaindegiko Bulegoak okupatu zituzten eta gose greba egiteko Derion egondako 5 abadek: Nikola Telleria, Alberto Gabikagojeaskoa, Josu Naberan, Julen Kaltzada, Xabier Amuriza.
 - Hirugarren egunean, poliziak atera zituen. Basaurira eta handik Burgoseko militarren aurrera. Akusazioa: **"REBELION MILITAR"**.
 - Josu Naberan eta Alberto Gabikagojeaskoari, 12 urte eta egun bateko Kartzela. Besteei, 10 urteko Kartzela zigorra. Guztiak **ZAMORARA, "KONKORDATUKO KARTZELARA"**.
- **69.06.10: Paulo VI Genevan. "Euskal Herria pairatzen ari zen Errepresioaren Txostena" eskura ematea tokatu zitzaidan Genevako Eliz Ekumenikoan.** Txosten horretan torturen marrazkiak ere jarri ziren.
 - Frantziako "Echanges et Dialogues" abade talde "contestataires", Suitzako Protestanteekin batera, abiatu ziguten bidai hau.

OHARRA.- GOOGLen bidez ikusi ahal da bideo bat Paulo VI-k Genevara esandako datan egin zuen bidaiarena, Suitzako Telebistak egindako bideoa da, 19 minutukoa. Bertan ikusten da egon ginen eliza, baina ez da ikusten nik berari txostena aurkeztu nion pasartea. Aurreko ilarara joan nintzen, eta bera agurtzen zetorrenean Gotzain eta Erakunde Katolikoko Presidenteak, eskua luzatu eta azal handi baten barruan zegoen Txostena eskuratu nion, esanez, “euskal apaiz bat nintzela, Frantzian errefuxiatua, eta eskaintzen niola Euskal Herrian zegoen errepresio egoeraren gaineko Txosten bat” (frantsesez). Erantzun zidan: “Je verrai”. Eta pausa luze baten ondorioz, berriro esan zidan “Je verrai”. (Begira: [“RTS, Les Archives de”](#) - Suitza RTB-).

- **“Errepresioaren Dossierra”** Pablo VIri ez ezik, beste erakunde batzuei ere eskaini genien Genevan, hala nola: **“Nazio arteko Juristen Batzordeari”**, **“Nazio arteko Gurutz Gorri Batzordeari”** eta **“Eliz Erreformisten Guneko arduradunei”** (“Protestanteak”) ere.
- **69.06.23: Paulo VI-k Vatikanoko Kardinalen aurrean egindako Diskurtsoa.**
 - Elizako Hierarkiaren dagon mesfidantza zabalaz kexatu ondoren, Jaungoikoaren Herrian fidagarritasun osoaz jokatu beharraz mintzatu zen.
 - Jarraian, ohitura denez honelako elkaraldietan, “begirada bat egingo duela hurbil eta urruneko herrialdetara”, dio.
 - **“Mina eta Itxaropena Munduan zehar”** kapitulu pean, *Herrialde hauetaz mintzatzen da: Vietnam; Nigeria; Ekialde Hurbila; España. España, besteen maila berdinean jarritz.*
 - Kontutan hartuta, egoera ezagun batzuen aurrean jendartea (langileria, gazteak, abadeak tarte) indartsu erreakzionatzen ari dela, **“aurrerapen baketsu eta justizia sozial eraginkorra eskatzen du.**
 - Honen ondorioz, Nazioarteko Españako enbaxadak pil-pilean jarri ziren, ze informazio iturri zuen Paulo VI-k horrelakorik plazaratzeko jakinen minaz.
 - **“Errepresioaren Dossierra”** Pablo VIri ez ezik, beste erakunde batzuei ere **“Nazio arteko Gurutz Gorri Batzordeari”** eta **“Eliz Erreformisten Guneko arduradunei”** (“Protestanteak”) ere.
 - Diskurtso hau, *nik uste*, ulertu behar dela Genevan berari aurkeztutako txostenari erantzun bat ez ezik, abade euskaldunak historian zehar plazaratu dituzten ekimen zintzo, gogor eta salatzaileen aurrean, hausnarketa bat ere, eta Elizaren (eta, bide batez, Espainiako Errejimenaren) jarrerari buruzko aldaketaren aldeko hausnarketa eta “txartel horiaren” erakusketa, batez ere.
 - Kontutan hartu behar da ordu arte Vatikanoa isilik egon dela beti, edota garbiago, Diktaturaz baliatzen, eta bertaratutako gure herriko mezulariei bedekazioak eta arrosarioak eskaintzen zitzaizkiela beti, beste barik.
 - Hau litzake, ba, Vatikanoko Aita Santuak bertoko bake eta sozial arazoez gainean eta mundu guztiaren aurrean, mintzatzen den lehenengo aldia.

- 69.ko uztaila inguruan karta bat jaso nuen **Cirardak**, Gotzainak, **izenpetuta, 11.000 Pztako taloi batekin**, ihes eginda geunden abade guztientzat. Orduan, 11 ginelakoan nago. Geure artean harremanetan jarrita, denon izenean, itzuli nion taloia zegoen moduan, eskutitz batekin.
 - Esan beharra dago Luis Mari eta bioi, aurreko Gulpide obispoak, 68.ko abuztutik, kendu zigutela tokatzen zitzaigun soldata, antza, ez genuelako onartu berak, zigor moduan, agindu zigun herriz aldaketa.

OHARRA: Nahi izan ezkerro, baditugu hemen azaltzen diren idazki, dokumentu, diskurtso eta abarren euskarriak.

Josu Barandika

Bilboko Kafe Antzokian egindako ekitaldi eta Prentsa aurrerako, 2018-11-22.

Gero, 2019.09.30.an, xehetasun batzuk atxiki dizkiot, Epilogoan, gehien bat, agertzen direnak.